BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2441

EBAZPENA, 2012ko apirilaren 16koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, jateko patataren erreferentzia-prezioak eta benetako batez besteko prezioa ezarri dituena 2011-2012 ekitaldirako, «Arabako Patataren Konpentsazio Fondoa» izeneko Patatagintzako Gizarte Emendioetarako Borondatezko Erakundearen estatutuetan aurreikusitako ondorioetarako.

«Arabako Patataren Konpentsazio Fondoa» izeneko Patatagintzako Gizarte Emendioetarako Borondatezko Erakundearen Estatutuen 27. artikuluaren 1. idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, prezioak konpentsatzea egongo da, baldin eta, hazitarako eta jateko patataren benetako batez besteko prezioak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak dagokion ekitaldirako ezarritako erreferentzi prezioak baino baxuagoak badira.

Era berean, artikulu berorren 3. idatzi-zatian zehazten denez, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak zehaztuko ditu erreferentziako batez besteko prezioa eta benetako batez besteko prezioa, Erakundearen Gobernu Batzordeari entzun eta gero.

Ikusi da horri buruz Erakundearen Gobernu Batzordeak proposatutakoa eta kontuan hartu dira Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzeari buruzko abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan ezarritako funtzioak eta eskumenak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Arabako Patataren Konpentsazio Fondoa» izeneko Patatagintzako Gizarte Emendioetarako Borondatezko Erakundearen Estatutuetan aurreikusitako ondorioetarako, jateko patataren erreferentziako prezioa, 2011-2012 ekitaldirako, honako hau da: 150 euro/tn.

Bigarrena.– «Arabako Patataren Konpentsazio Fondoa» izeneko Patatagintzako Gizarte Emendioetarako Borondatezko Erakundearen Estatutuetan aurreikusitako ondorioetarako, jateko patataren benetako batez besteko prezioa, 2011-2012 ekitaldirako, honako hau da: 73 euro/tn.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunak gorako errekurtsoa jarri ahal izango dio Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari, ebazpen hau argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 16a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.